



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017 - 03 - 27

BILERA ZENBAKIA: 38

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Lau neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena

2. Etxeko lanak

3. Harrera liburuxka

4. Berdintasuna

5. Medikuarekin bildu

6. Janari Banaketa

7. Desfibriladorea

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. ETXEKO LANAK

- DOKUMENTALAK.

1. Liburuxka prest dago baino momentuz ez da banatuko. Indibidualak banatuko dira, maiatzerako ez bada erabakirik hartzen indibidualak banatuko dira urte osoan.

2. Gazteei zuzendutako pelikula aurrera dijoa, uztailerako antolatu eta ideia bezela gai ezberdinak lantzen dituzten "laburmetrail" desberdinak izatea; irakrzaletasuna, errespetua...



3. Lizentzia eskatzearen inguruan informazioa jaso da, 800€ 8 pelikula. Gehiegizkoa iruditu zaigu, sarrerarik kobratzen ez dela iusita gainera.... bideraezina.

- **KZ GUNEA**

1. Inpresora lortu da, aparatua beraiena eta kudeaketa (orriak eta tinta) udalaren eskutik. Araudia sortuko da eta jarraipena egingo da arazorik ez sortzeko.

2. Ikastaro desberdinak egiteko aukera dago gazte, langabetu eta 3. adinekoei zuzendutakoak. Inprimakia osatuko da etxeetara bidali eta herritar bakoitzak aukeratu dezala daudenen artean, 5 plaza daude eta maiatzak 8rako planteatzen da hasiera, izena emateko udalean buzoia jarriko da eta apirilak 28 arte apuntatzeko epea egongo da.

3. HARRERA LIBURUXKA

Prest dago baina datuak eguneratu behar dira. Ekainerako prest egotea espero da.

4. BERDINTASUNA

Berdintasuna lantzeko "ideiak botatzea" erabakitzen da eta daudenen artean erabakitzen joan:

1 IDEIA. 2017 urterako egutegia egin herriko talde desberdinekin, hilabete bakoitzean egunerokotasunean eta berdintasunarekin erlazioa duten argazkiak azalduz.

2 IDEIA. Eskolarekin lanketa egin, batez ere errespetua lantzeko. Hitzaldiren bat antolatzea proposatzen da, eskolarekin landu beharko da euren iritzia ere jasotzeko eta zehazten joateko. Mikel Zurutuzak emateko aukera dagoen ikusi.

5. MEDIKUAREKIN BILDU

Rut Arantxarekin elkartu zen eta zein ikastaro burutzea interesatzen zaien informazioa jaso zuen:

- Sendian Programa
- Antsietatea eta Depresioa landu erlajazio tekniken bidez, yoga irakaslearekin planteatu
- Sexu harremanak eta gazteria. VIH gora dijoala eta hori heltzea interesgarria



izango zen. Hondarribiko HIRUSTA kolektiboarekin harremanetan jarriko gara galdetzeko.

- Nerabeak eta "Smartphon"ak KZ Gunetik egiteko aukera gazte eta gurasoei zuzenduta. 2 orduko saioa izango zen, ostiral arratsalde batean, proposamena maiatzak 5, ostirala 18etatik 20etara.

- "Testamento vital" eta bularreko minbiziaren inguruko hitzaldirik momentuz ez antolatzea erabakitzen da.

6. JANARI BANAKETA

Janari banaketa hilabetero egiten da eta lekuz aldatzea eta kudeaketa aldatzea planteatzen da. Herri erdian izanda, leku diskretoago bat bilatzea da helburua eta elikagaiak jasotzen direnetik familiei lehen bait lehen emateko aukera izatea. Dauden aukerak baloratzen joango dira.

7. DESFIBRILADOREA

Ikastaroko partaidetza nahikoa ez zen lortu. Desfibriladorea udalaren sarreran jarri da eta aldizkarian BBB-RCP instrukzioak argitaratuko dira. Udalean, Mekidu kontsultan, Jubilatutuek ere kartelak ipiniko dira instrukzioekin eta herritarren artean poltsikoko instrukzioak ere bai banatuko dira.


ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Langabetuei zuzendutako ekintzak antolatu	Maiatza	ERKUDEN
Itsasondo 2.0 artikulua	Apirila	BAKOITZAK BEREAK
Itsasondo 2.0 elkarrizketa	Apirila	RUT
GOIEKIko genero indarkeriaren inguruko informazioa lortu		
Harrera eguna	Maiatza	DENON ARTEAN
Errefuxiatuei zuzendutako ekimena antolatu	Maiatza	HAIZEA-JABI
Elikagai Banaketan aldaketak	Urtean Zehar	ERKUDEN

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko Apirilaren 10-ean egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen erreposoa
- Errefuxiatuen ekimenaren antolakuntza



175 ANDO EKINEZ EGINA